



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xenda-zaletasun atala
120. zka 8. etapa GR-38	Durango-Gernika/2016-11-19/20

Adiskide mendizaleok:

Aurtengoz, Gr-38-ko azken etapa, Durango eta Gernika herrien artean. Ibilbide hau Bizkaiko lurretan zehar egingo da oso-osorik. Abiapuntua Santa Katalina basilizaren izango dugu, Garai herritik hurbil. Tradizioaren arabera, Duñaiturri herrixkakoei sortu omen zuten, baina esan behar da gaur egungo eraikina 1773an berreraikitakoa dela.

Bertan aipagarria da aurrean duen zurezko balaustada, barrualdea ikusteko aukera ematen duena, eta barruan santa Katalinaren irudia ikus dezakegu, basilizaren santa titularra, baita tamaina handiko Kristo gurutziltzatu herriko bat ere. Basilizaren aurrean IX/X mendeetako sarkofagoa dago, ziur asko bere garaian lekuz aldatua hurbil dagoen Momotioko San Juan basilizatik. Zoragarria da handik dagoen ikuspegia.

Hemendik Oruetako baserrietatik igaroko gara, Lasiar mendi-lepoaren bila Arakaldo eta Añaoko gailurren artean. Aurrerago Maguma gunera iritsiko gara. Gero Astogana mendiaren (801m) mendebaldeko brankarantz joango gara, Gola sakanaren burualde zabala zeharkatuz. Aurrerago bideak bat egiten du pista asfaltatuarekin, Maskagakorta gisa ezagutzen den lekuan, han dagoelarik Lekeitiora hartzeko adarra, GR-38-1-en bidez.

Albizeko herri txikia gure igarotzearen lekuko izango da. Eta gero Mendata Uriara eta Mendatara iritsiko gara, jada gure amaieratik hurbil. Gure ibilbideak Kalbario mendira eramango gaitu eta Arganera jaitsiko gara, eta Useganeko garaiera edo kota apalera igo ondoren, Arganarantz jaitsiko gara.

Oso gutxi falta zaigu Gernikako herri historikoan amaitzeko; 1937ko apirilaren 26an, Espainiako Gerra Zibilean bonbardatua, ezohiko ankerkeriaz, José Antonio Agirreren hitzetan, frankisten zerbitzura zeuden Alemania eta Italiako hegazkinak, zeharo erraustuta utzi arte. Gertaera haietan oinarriturik, Pablo Picassok *Gernika* margolana egin zuen, Parisko Nazioarteko Erakusketan aurkeztua 1937an.

Animo, mendizaleok, natura zain dugu eta!!!

Ibilbidea: Durango-Gernika

Beharrezko denbora	5,10
Goranzko desnibel metatua	795 metro
Beheranzko desnibel metatua	680 metro
Zeharretara egin beharreko distantzia	19.630 metro
Ingurua	1
Orientazioa	1
Joan-etorria	1
Esfortzua	3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (Bus geralekua 17/24) eta Pio XII.aren plaza (Bus geralekua 24/27)
Aurkezteko ordua	07:35 (Bilbo plaza) eta 07:40 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua:	07:40 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	Xxxxxxx jatetxea.
Prezioa	30 euro

Izena emateko azken eguna: 2016-11-17ko 12:00etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzaile kopururik, irteera bertan behera geratuko da.
b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (943-31.02.52/joseig15@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

